



# Egiazko heziketa afektibo-sexual feministaren edukiak identifikatzeko gida

2025eko urrian, Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Sailak heziketa afektibo-sexualaren eredu berri baterako proposamenari buruzko kontsulta publikoa abiarazi zuen, planteamendu queer, pornifikatzaile eta transgeneristetan erabat inspiratutako eredu batek hainbat urtetan hegemonia izan ondoren.

Hezkuntza Sailak proposatutako eredu berriaren edukiek, orientazioak eta partaidetza-prozesua abiarazteak 40tik gorako elkarte eta hirugarren sektoreko entitateen protesta-erreakzioa eragin zuten. Denen orientazioa queer zen, eta ordura arte administrazioek horiek kontratatuak zituzten ia modu eksklusiboan. Bi komunitatutan, kontsulta gelditzeko eta proposamen berria atzera botatzeko exijitu zioten administrazioari, baita aurreko eredu mantentzeko ere. Gure aldetik, Hezkidetzaren aldeko Irakasle Feministak eta Kataluniako Feministak batu ginen kontsulta modu aktiboan sustatzeko eta, Hezkuntza Sailaren proposamena aztertu ostean, baita balorazio positiboa bultzatzeko ere.

Gida hau ondoz ondoko bi lanen emaitza da. Alde batetik, herritarren esku jarri den dokumentuaren emaitza da, horren helburua izanik heziketa afektibo-sexual feministaren oinarriak argiro eta oinarriekin azaltzea, eta egiazko eduki pornifikatzaile eta transgeneristak agerian ipintzea alderaketa horretan. Eta beste aldetik, Nadia Ahufinger eta Silvia Carrascoren artikulu batean (2025) plazaratutako ikerketa-ekintzaren emaitzen ondorio da. Artikulua hau da: “¿Por qué el porno perjudica a todo el mundo? Lecciones de un taller con estudiantes de ESO”. (Zergatik da pornoa kaltegarri guztiontzat? DBHko ikasleekin egindako tailer bateko ikasbideak).

<https://revistas.udc.es/index.php/ATL/article/view/arief.2026.I.I.I.12429>

Jarraian, heziketa afektibo-sexualak bete behar dituen 30 puntu zehaztu dira, funtsezko zazpi alderdi psikopedagogikoren inguruan. Halaber, queer sexu-heziketa oso deritzonaren eta heziketa afektibo-sexual feministaren arteko alderaketa laburbildu da taula batean. Hartara, administrazioen eta elkarten aldetik ikastetxetara oraindik heltzen diren proposamenak ebalua daitezke.

Oso garrantzitsua da proposamenen alderdiak eta edukiak egiaztatu ahal izatea elkarte eta entitateen eskuorri eta webguneetatik harago zeren ikasle, irakasle eta familiei eskaintzen dizkieten tailerren benetako edukiak eta orientazioak ezagutzea eragozten baitute sistemaz.



## Treinta puntos clave para el proceso participativo sobre Educación afectivo-sexual

### I. Heziketa afektibo-sexualaren kontzeptu-esparrua eta xedeak

(Oinarri teoriko feminista eta heziketa-helburu globalak)

1. Heziketa afektibo-sexuala ikastetxeko hezkidetzeta-proiektuaren egituraren barruan egon behar da, eta emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunera bideratuta egon, bat etorri emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako estatuko 3/2007 Legearekin eta autonomia-erkidegoetako berdintasunerako legeekin.
2. Oinarri teorikoa feminismoa izan behar da, prostituzioaren abolizionista dena, zeinak sexua errealitate material gisa ulertzen duen, eta generoa, abolitu beharreko zapalkuntza-sistema gisa, alegia, ez estereotipo sexistetan oinarritutako nortasun edo adierazpen pertsonal gisa.
3. Heziketa afektibo-sexualak afektuari, errespetuari eta elkarrekikotasunari lotutako giza sexualitatea sustatu behar du, sekula ez gorputzen —pertsonen— kontsumoa eta merkantilizazioa.
4. Heziketa afektibo-sexuala eta sexu-heziketa osoa argi eta garbi bereizteko beharra dago: lehenengoa hezkidetzeta feministaren esparruan kokatzen da, berdintasuna lortzeko; bigarrenak queer ikuspegi bat txertatzen du, sexuen arteko berdintasunaren ordezkari fikziozko askotariko sexu-nortasunak dakartzana.
5. Heziketa afektibo-sexualaren helburu orokorrak hauek izan behar dira: berdintasuneko harremanak bermatzea, sexu-indarkeria prebenitzea, atzemate pornografikoari aurre egitea, eta ikasleak askatasunean eta erantzukizun afektiboan trebatzea.

### II. Hezkidetzeta eta ikuspegi feminista hezkuntza-sisteman

(Hezkidetzaren zeharkako aplikazioa eta kritika androzentrismoari)

6. Hezkidetzak oinarrizko metodo pedagogikoa izan behar du, eta ikasgai guztietan eta ikastetxeko jardura guztietan egon behar da, zeharkakotasunez.
7. Eskola-materialak eta -edukiak berrikusi behar dira sexismoa eta androzentrismoa ezabatzeko, eta emakume-erreferentziak txertatu ezagutzaren arlo guztietan.
8. Ikastetxeek irakasleen trebakuntza feminista bermatu behar dute, jardunbide matxistak, estereotipoak eta eguneroko desparekotasunak identifikatu eta desegin ahal izateko.
9. Eskolak generoari buruz hausnartzeko espazioak eta denbora eduki behar ditu, baina generoa zapalkuntza-sistema gisa finkaturik, ez esperientzia identitario gisa.



10. Hizkuntzaren erabilera ez da androzentrikoa izan behar, ezta sexista ere. Hala, emakumeen presentzia eta berdintasuna islatu behar du hizkuntzak eskola-bizitzaren arlo guztietan.

### III. Kritika feminista pornografiari eta prostituzioari

(Sexu-indarkeria eta gauza bihurtzea prebenitzeko ardatza)

11. Heziketa afektibo-sexualak pornografiari heldu behar dio filmaturiko sexu-indarkeria gisa; desparekotasuna eta gizonen emakumeak azpiratzea erotizatzen ditu eta.
12. Pornografia- eta prostituzio-industriak darabiltzan atzemate-estrategiak identifikatzen irakatsi behar zaie ikasleei. Mutilak kontsumitzaile gisa atzeman nahi ditu, eta neskak, kontsumitzeko objektu gisa.
13. Heziketa-edukiek negozio pornografikoaren eta prostituzioaren izaera ekonomikoa, delituzkoa eta patriarkala erakutsi behar dute, sexu-esplotazioaren formak diren aldetik.
14. Eskola-tailerrek eta -proiektuek pentsamendu kritikoa sustatu behar dute pornoari eta nerabeen sexu-jardueretan daukaten eraginari buruz, eta ez hutsaldu.
15. Heziketa sexu-afektiboak ulertzen lagundu behar du pornografia eta prostituzioa ez direla bateragarriak berdintasunarekin eta errespetuarekin, eta menderatze-sistema patriarkala betikotzen dutela.

### IV. Garapen afektibo, emozional eta sexual osasungarria

(Bidelaguntza heltze-prozesuan, eta elkar errespetatzeko heziketa)

16. Heziketa afektibo-sexualak etapa ebolutibo bakoitzeko heltze-erritmoak errespetatu behar ditu, eta hipersexualizazio goiztiarra eta sexualki "errendimendua" izateko presioa saihestu.
17. Elkarrekiko desioan, benetako baimenean eta askatasun emozionalean oinarritutako sexualitatea sustatu behar da, ez banakako plazeran edo pornoaren imitazioan oinarritutakoa.
18. Heziketa sexu-afektiboko programek autoestimurako, norbere gorputza zaintzeko eta desioa kudeatzeko konpetentzia emozionalak garatu behar ditu.
19. Tailerretan, enpatian, afektibitatean eta errespetuan ere hezi beharra dago, pornografiaren kulturaren eta indarkeria sinbolikoaren kontrapisu gisa.
20. Heziketak mutilen ohartzen lagundu behar die nolako erantzukizuna duten maskulinitate berdinak eta errespetutsua eraikitzeko zereginen, menderatzen edo indarkeriatik urrutu.



## V. Familia-aniztasuna eta ugalketa-etika

21. Giza eskubideen eta emakumeen duintasunaren errespetutik abiatuta heldu behar zaio familia-aniztasunari. Familia-formen pluraltasuna aitortu behar da (guraso bakarrekoak, sexu bereko gurasokoak, adopziozkoak edo harrerakoak), baina ugalketa-esplotazioko jarduerak normalizatu gabe; adibidez, alokairuko sabelak.
22. “Haurdunaldi subrogatua” ez da ugalketa lagunduko teknika bat, emakumeen ugalketa-esplotazioaren forma bat baizik. Eskolak argi utzi behar du emakumeen gorputza ezin dela kontratatu eta merkantilizatu, eta amatasuna ez dela zerbitzu bat, baizik eta emakumeen duintasunari eta askatasunari lotutako eskubide bat.

## VI. Ingurune seguruak eta ikastetxeetako antolaketa

(Espazioak, hizkuntza, interakzioak eta eskola-kultura)

23. Ikastetxeek neskentzako espazio seguruak eta ez-mistoak bermatu behar dituzte beharrezkoa denean (komunak, aldagelak, hilerokoari edo sexualitateari buruzko tailerrak).
24. Elkarlana —eta ez lehia— sustatzen duten jarduerak eta metodologiak diseinatu behar dira, eta neska-mutilen partaidetza ekitatiboa ziurtatu.
25. Eskola-espazioen erabilerak berrikusi behar dira (ikasgelak, jolastokiak, laborategiak), gizonezkoen menderatzea saihesteko eta nesken partaidetza aktiboa bermatzeko jarduera guztietan.
26. Ikastetxeetako berdintasun-planetan sexu-indarkeria, jazarpena eta pornografia digitala prebenitzeko neurri espezifikoak jaso behar dira.
27. Eskolak estereotiporik gabeko sozializazio-espazio bat izan behar du, neska-mutilek beren izaera garatu ahal izateko sexuagatik inposaturiko baldintzarik gabe.

## VII. Profesionalak, materialak eta entitate kolaboratzaileak hautatzea

(Zehaztasun pedagogikoa eta ideologikoa bermatzea)

28. Heziketa sexu-afektiboak hezkidetzaren trebatutako profesionalak soilik bideratu behar dituzte, ez queer entitateek edo interes ekonomiko edo ideologikoak dituzten enpresek.
29. Heziketa-programen jatorria ez litzateke izan behar prostituzioa “sexu-lan” gisa edota pornoa “sexu-heziketa” gisa sustatzen duten entitateak.
30. Ikus-entzunezko materialak eta material didaktikoak berrikusi behar dira, bermatu ahal izateko ez dituztela sustatzen pornoaren aldeko diskurtsoak, queer diskurtsoak edota sexu-indarkeria erlatibizatzen duten diskurtsoak.



## Queer “SEXU-HEZIKETA OSOA” eta HEZIKETA SEXU-AFEKTIBO feminista konparatzeko taula

| “Sexu-heziketa osoa” (queer)  | Heziketa afektibo-sexuala (feminista)   |
|---|---|
| Pornoa fikzioa da eta hez dezake. “Porno feminista” dago, eta sexu-errutinatik ateratzeko balio du.   | Pornoa sexu-indarkeria filmatua da, adikzioa eragiten du eta eragin negatiboa dauka kortex prefontalean eta enpatizatze gaitasunean.  |
| Sexua ez da bitarra, espektro bat baizik. Bakoitzak bere genero-nortasuna eta “sexu sentitua” esploratu behar ditu.   | Heziketa afektibo-sexuala ezin da bereizi emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako heziketatik eta haurren babesetik.  |
| Pertsona guztiek sexualitatea dute txikitatik, eta zerk ematen duen plazera ikasi behar da, lehen haurtzaroan hasita berdinkideen artean esperimentatuz.  | Sexualitatearen heldutasun-etapetan jarri behar da arreta, etapak nahasi gabe. Eta haurtzaroan hasita norbere gorputza deskubritzeko prozesuen bidean lagundu behar da.   |
| Pertsonak heterosexuatzat edo homosexuatzat jotzea “kortse errepresiboa” da. Genitalek ez gaituzte gizon edo emakume soilik bihurtzen, harremanak gorputz gisa izaten ditugu-eta (hilekoa duten gorputzak, sabelean haurrak hazten dituzten gorputzak, gorputz intseminatzaileak, etab.). | Pubertaroan neskek eta mutilek beren gorputza —norbere erritmora— berriz deskubritzeko prozesuari buruzko informazioa eman behar da, eta haiekin elkarriketan aritu, bidelaguntza arduratsua eginez. Sexu-orientazioei buruzko aurreiritziak baztertu behar dira.                                       |
| Sexualitatea demokratizatu behar da. Baimena eman ahal izateko adina ezarrita egoteak pertsona guztien “plazererako eskubidea” mugatzen du.   | Beste pertsona batzuen interferentzia desegokiak (abusuak) eta erakartze pornografikoko estrategiak identifikatzen erakutsi behar da. Benetako baimena eman daiteke desioa dagoenean soilik. Ezin da inoiz eman posizio desperekoetan dauden pertsonen artean, eta sekula ez beste norbaiti gustatzeko. |
| Desgaitasuna dutenek “sexu-laguntzarako eskubidea” daukate, zerbitzu ordaindua eskaintzen duen lan baten modura.  | Sexualitatea plazer- eta osasun-iturria da, eta oinarri hauek izan behar ditu: desioa, errespetua, elkarrekikotasuna eta ardura harremanak ditugun pertsonetarako.  |
| Prostituzioa beste edozein bezalako lana da. “Sexu-lana” eta “sexualitate disidentea” da, “inposizio moralisten” aurkakoa.  | Pornografia eta prostituzioa sexu-indarkeria dira. Negozio kriminal beraren parte dira, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin bateraezinak. Mutilak erakartzen saiatzen dira, kontsumitzaile izateko, eta neskek ere bai, kontsumitzeko objektu izateko.                                   |
| “Adingabeekiko sexu-erakarpena” sentitzea (Minor Attracted People) beste sexu-orientazio baten gisara ikusi beharko litzateke.  | Adingabeekiko sexu-erakarpena ez da sexu-orientazio bat, pederastia baizik, eta delitu bat da.  |
| BDSM praktikak aske parte hartzen dutenen arteko akordioetan oinarritzen dira.  | Pornoan ikusten diren BDSM praktikak errepikatzen saiatzen dira nerabeak, eta osasunerako ondorio larriak dakartzate, batez ere neskenentzat.   |
| Sexualitatea ez da ugalketari lotuta egon behar. Giza ugalketa askotariko moduetan gauzatu daiteke. Haurdunaldi subrogatua ugalketa-aniztasunaren forma bat dela uste da, eta modu altruistan egin daitekeela.  | Sexualitatea ez da ugalketari lotuta egon behar. Sexu- eta ugalketa-eskubideak, kontrazepzio-metodoak eta ugalketa lagunduko teknikak ezagutu behar dira. Teknika horiek ezin dira inoiz oinarritu emakumeen esplotazioan eta haien gorputzen erabileran.   |